

PRORGAMA

GORPUTZETIK HARAGO: ESPAZIOA ETA KONTAKTUA

JUAN GOROSTIDI

DESKRIBAPENA

Kontaktu agresiboari loturiko eta haren inguruko hainbat gai modu praktikoan landuko ditugu jarrera gisa.

PROGRAMA

Hainbat teknikaren ikasketa formalaren gainera, norberaren espazio fisiko, bestearekiko kontaktu agresibo ez-suntsitzailea eta hauen inguruko eragiketa eta erreakzioen aldaerak landuko ditugu. Jarrera psiko-fisikoa eta horren adierazpen ez-hitzezkoa; inbasioa eta horren absortzio posiblea; uneko tentsio-erlaxaziotik harago, muturreko zurruntasunaren eta malgutasunaren jatorriak eta ondorioak...

Posible al da modu esplizituan kontaktu agresiboa lantzea gorputz-ariketa gisa, egoerak eta ahaleginak piztuko dituen paradoxak ukatu gabe, ariketa horretatik bertatik paradoxa horiek kudeatzeko ahaleginean? Galdera honi erantzunez planteatzen da tailer hau: ez kirolari lotzen zaion helburu instrumental batekin, ezta autodefentsari loturiko aurre-iriziarekin ere.

Guztiok onartzen dugu ez-agresioa elkar bizitzarako baldintza gisa. Baina ezin harreman sozialak ulertu berezko duten oldarkortasuna kontuan hartu gabe: "agredire" latinezko hitzak bestearengana zuzentzea esan nahi zuen jatorrian, kontaktua egitea. Kontaktuak berezko duen osagai agresiboa gorputzean askatu gabe geratzen zaigu maiz, eta hura kudeatzeko zailtasun handiak ditugu. Inhibizioaren ondorioak barneratzen ditugu, eta hala, emakume-gizon zibilizatua noiznahi lehertu litekeen presio-sistema batenpeko oinaze gor baten somatizatzaile bihurtzen da. Neurri batean kirolek jasoko dute garai bateko kode gerrariak, baina ez modu esplizituan: jarraitzen dugu agresibitatea ukatzen eta konpetentzia areagotzen, kirolean nahiz haren ereduz eraikitako beste harreman-eremu guztietan.

Gorputzetik gorputzera egindako bidaia izango da tailerra, eta esperientziaren elaboraziorako tarteak ere landuko ditugu.

DATAK

Urria: 17, 24 eta 31
Azaroa: 7, 14, 21 eta 28
Abendua: 5, 12 eta 19

Asteartea, **18:00-19:30**